

# txintxarri



## Inurrien antzera, elkarrekin aurrera

Minbizia dutenei eta ingurukoei laguntzeko sortu dute 'Izan lñurri' proiektua / 8-9

TXINTXARRI

## Erreferendumaren aldeko herri ekimena helburu

Herriz herri ari dira aurkezpenak egiten, eta asteazkenean Lasarte-Orian izan ziren. Gure Esku Dago dinamikak herritarren eta eragileen artean sustatu nahi du egitasmoa / 3



TXINTXARRI

**Aldarriei erantzun bat emateko eskatu du Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuen taldeak / 4**

**Giro ederrean gozatu dituzte Sasoetako bizilagunek auzoko festak / 6-7**

**Berrikuntza batzuekin dator urriaren 27ko Lasarte Ori Bai! Kros Herrikoia / 10**



- Estilo ezberdinetako argiak
- Kalitatezko produktuak, prezio ezin hobean

**Zure etxerako argi aproposenak ditugu**

Kale Nagusia 39 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 eta 600 857/586



[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)





Mari Karmen Ormazabal, Ttakun Kultur Elkartearen lehendakaria, udaleko ordezkariarekin. TXINTXARRI

## Hizkuntza ohiturak astintzen jarraitzeko

178.015,84 euroko dirulaguntza hitzartu du Lasarte-Oriako Udalak, Ttakun Kultur Elkartearekin. Laguntza horren bidez, herritarren hizkuntza ohiturak astintzeko zazpi programa gauzatu ditu elkarteak. Elkarlanaren garrantzia nabarmendu dute

### Txintxarri

Pasa den astean sinatu zuten ikasturte berrirako (2019-2020) hitzarmena udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak. Orain arte bezala, lasarteoriatarren hizkuntza ohiturak astintzen jarraituko du elkarteak, eta 178.015,84 euroko diru sortaren bidez, bi entitateek, elkarrekin landutako lan-lerro eta programak gauzatu ditu Ttakunek.

Guztira zazpi programa garatu ditu elkarteak ikasturtean zehar. Hedabideen alorrean, TXINTXARRI aldizkaria -paperezkoa eta digitala- babestuko du hitzarmenak.

Horrekin batera, Aisiak barne hartzen dituen Gazte Kluba, Amaraun Kluba eta Kuadrillategi egitasmoetara ere bideratuko da diru sortaren zati bat, eta baita helduen euskalduntzerako programetara ere; Solaskidera, Gurasolandiara eta Gurasolagunera hain zuten.

Kulturari dagokionez, Euskararen Eskutik programaren bitartez, Euskal Jaia eta Udaberriko Bertso Saioa ere lagunduko du hitzarmenak, eta baita beste zenbait ikastaro ere.

Horrekin guztiarekin batera, Euskaraldia elkarrekin antolatuko dute bi entitateek.

Elkarteari bideratutako diru kopuruak hala behartuta, bi auditoria bidez likidatu beharko ditu kontuak Ttakunek.

### Elkarlanaren garrantzia

Mari Karmen Ormazabalek, Ttakun Kultur Elkartearen lehendakaria, udalaren eta elkartearen arteko elkarlana azpimarratu du: "Hitzarmen eredu garria da bi erakundeen artean, herrian egiten ari den lanagatik".

Jon Antxordoki Euskara Zerbitzuko batzordeburuak eta Jesus Zaballos alkateak ere sinatutako hitzarmenaren garrantzia balioan jarri dute.



Bertsolariek kantuan jarri zituzten Manuel Lekuona kultur etxeko ikusleak. TXINTXARRI

## Mikel Artola bertsolaria, garaile Lasarte-Oriako final-zortzirenean

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusia bertsozalez bete zuen

### Txintxarri

Sarrerak agortuta eta aretoa lepo beteta irten ziren larunbat arratsaldean Aitor Salegi, Eneko Araiztegi, Iñaki Zelaia, Mikel Artola, Oier Aizpurua eta Unai Izagirre Manuel Lekuona kultur etxeko agertokira. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako azkena jokatu zuten herrian eta bertsozaleek ez zuten aukera galdu nahi izan.

Hasierako agurraren ondoren, zortziko nagusian aritu ziren binaka. Haur jolasak antolatu behar dituzten jai batzordeko kideak izan ziren Artola eta Zelaia: Araiztegi eta Salegi, berriz, aitari autoko giltzak kendu ala ez ikamikan dabilzan bi anaien azalean jarri ziren, eta azkenik, Izagirre eta Aizpurua aritu ziren langileek kafe makina aurrean denbora gehiegi pasatzen dutela eta hura kendu ala ez eztabaidan dabilzan nagusien paperean.

Arratsaldeko lehen txalo, barre eta kantuak piztu zituzten ariketa honekin, ondoren gehiago izan ziren zortziko txikian, puntuari erantzunez, hamarreko txikian eta kartzelakoan eragindakoak. Azken horretako "Atea zabaldu, barrura begiratu, eta, bat-batean, alde egin duzu" gaia iradokitzailea proposatu zien gai jartzaile lanetan aritu zen Imanol Artolak.

Final laurdenetarako txartela zuten jokoan eta erruz saiatu ziren seiak. Irabazleak ziurtatua zuten sailkapena, gainerakoek, berriz, puntuazioaren arabera lortu behar zuten aukera. Mikel Artola gailendu zitzaizen 429 puntu lortuta. Bereziki fin ibilita hamarreko txikian eta kartzelan, haietan onena izan baitzen.

Earra bertso eskolako Ane Labaka, Unai Muñoa eta Asier Azpiroz sailkatu dira final-laurdenetara, beste 27 bertsolarirekin batera.

## Tailer, ibilbide eta jolas bana, Aste Berdea bukatzeko

Tailerrak egin dituzte astean zehar: hazi bonbak, zorro organikoak... Dokumental bat ere proiektatu dute

### Txintxarri

Kutsadurarik gabeko hiri baten alde leloa aukeratu dute aurtengo Aste Berdearen antolatzaileek; udalak eta Vermican enpresak. Kontzeptu horrekin lotutako ekintza ugari egin dituzte

egunotan. Asteburuan egingo dituzte azkenak. Gaur arratsaldean tailer bat egingo dute: material birziklatua erabiliko dute. 17:00etan hasiko da, Okendo plazan. Bihar, bi ekintza, toki berean: material berrerrabiliekin

egindako herri kirolak, 10:00etan; eta Ezagutu Lasarte-Oriako kutsadura ibilbidea, 11:00etan.

Astelehen arratsaldean hazi bonbak nola egin ikasi zuten zenbait haurrek eta asteartean, tetrabrikekin diru zorroak egin zituzten.

Asteazkenean, tailer gehiago: pestizida naturalena goizean, eta Monika Organika panpinari buruzkoa arratsaldean. Atzo goizean Demain/Mañana dokumentala proiektatu zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean.



Hazien tailerrean egindako lanak etxera eraman zituzten etxeko txikiak. TXINTXARRI



# Herri ekimena oinarri, erreferenduma egiteko

Gure Esku Dago dinamikako kide Irati Elizalde eta Arkaitz Anzak hitzaldia eskaini dute Antonio Mercero aretoan, erreferendumaren aldeko herri ekimenari buruz. "Ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dugu". GED Lasarte-Oria taldeak ekin dio ikasturte berriari

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Erreferenduma ez da delitua". Irati Elizalderen hitzak dira, Gipuzkoako Gure Esku Dagoren ordezkariarenak. Herriz herri ari dira aurkezten erreferendumaren aldeko herri ekimena, "Euskal Herriaren etorkizuna erreferendum bidez erabakitzea posible egiteko". Asteazken arratsaldean etorri ziren Lasarte-Oriara. "218.000 pertsonak adierazi dute erabakitze eskubidearen alde daudela, urteotan egindako galdeketa -Lasarte-Oriakoa 2017ko maiatzean izan zen-; gure ambizioa da oraindik eta jende gehiagorengana iristea".

Horretarako, Gure Esku Dago sustatu nahi du ekimena herritarren eta eragileen artean, elkarguneen bitartez. "Norbanako eta talde askok daukate gaitasuna herritarrengana iristeko: saio irekiak antolatuta, ekarpenak egin ditzakete". Elizalderen hitzetan, "egiteko nagusia" mobilizazioak antolatzea da, ahalik eta jende gehienak parte har dezan. 2020. urteko maiatzerako edo ekainerako egin nahi dituzte. "Indartsu iritsi nahi dugu hilabete horietara, eta eredu izan".

Errenteriako GED taldeko kide Arkaitz Anzak badauka esperientzia herritarrek elkartzeko ekintzak antolatzen. "Oinarriak



Lepo zegoen Antonio Mercero aretoa atzo arratsaldean. TXINTXARRI

sendoa izan behar du, urratsez urrats indar posizio batetik jarduteko eta herri ekimena gorpuzteko". Adibide grafiko bat jarri zuen pantailan: errepide luze eta zuzen bat, eta mendiak atzealdean. "Erreferenduma mendi horiek dira; bidea zeinen azkar egiten dugun gure esku dago". Lehen fasea izango da herritarren eta eragileen sarea ongi ehuntzea, eta sinadurak biltzea. "Urrats hori zenbat eta irimoagoa izan, orduan eta gertuago egongo da erreferenduma", nabarmendu zuen aurkezpen ekitaldian.

"Erreferenduma: hitz berri bat, erronka berri bat. Pentsatzen ari gara herri ekimena nola gorpuztu herrian", adierazi zuen GED Lasarte-Oria taldeko kide Jaione Urruzolak. Berak eman zuen herrian egingo dituzten ekintzen berri. *Berriketan* saio bat iragarri dute azaroaren 23rako, larunbata. "Kataluniako egoera politikoa eta soziala landuko dugu, hizlari bat gonbidatuz". Mobilizazioak ere egingo dituzte, hango gobernu eta legebiltzarreko agintarien aurkako epaia kaleratzen duenean Auzitegi Gorenak.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

## Demagun

Irudikatu zaitez datorren astean euskal jaietan une batez. Herri bazkaria aurrena, lagun artean, jai giroan. Mus partida jokatu duzue ondoren, eta Loidibarren frontoian antolatutako pilota partida ikustera joango zara arratsaldean. TXINTXARRIK atera ditu partiduko argazkiak. Ator txuriarekin eta baserriarrez jantzita irten zara kalera goizean, gaua hasten denerako zikindu zaizu pixka bat.

"Afaldu denbora galdu" esaten dute lagunek, baina zu gosetuta zaude eta joan zara patateroen furgonetara sandwich baten bila. Demagun han dagoela Beñat (edo Oihan edo Jokin, edo Ainara edo Aratz edo Jon Ander...). Herriko ezagunak dituzu. Urte batzuen gorabeheran aritu zarete gazte mugimenduan, gaztetxean, herriko taberna giroan, musika eskolan...

Afalduta joan zara Jalgira dantza pixka bat egitera. Baina bete-betea dago, eta goizaldeko letarako nekatuta zaude. Azken buelta bat Ilargira, eta ondoren etxera egin duzu. Kamiseta zuriarekin.

Biharamunean ikusi duzu mezua: "Mikel (esan nahi baita Adur)! Liskarra Ilargin". Ertzaintza ere etorri dela, baina azkenean, zauritutako lagunak bertan artatuta etxera joan direla. Beñatek dio bera ere Jalgin zegoela eta abisatu ziotenerako taberna kanpoan zela liskarra. Bideoz hartzen saiatu zen, baina ez zioten utzi. Mirenek (esan nahi baitu Ainarak) Trumoien egiten zuen lan eta liskarren berri izandakoan joan zen Ilargira. Ertzaintza harekin hasi da eztabaidan.

Demagun lau lagun horiek Guardia Zibilak eta haien emazteak direla, demagun Espainiako Auzitegi Nazionalak ez dituela TXINTXARRIKO argazkiak frogatzat hartu. Demagun halako jai egun bateko taberna bateko liskarraren auziaren epai irmoa duzula hiru urteko kartzelaldiaren ostean: bederatzi urte eta erdi. Demagun hau ez dela Lasarte.

## Inauterietako gaia proposatzeko azken eguna, urriak 31

"Zertaz mozorrotu nahiko zenuke herria 2020. urteko Inauterietan?". Galdera hori egiten die udalak herritarrei. Txartelak banatzen ari da etxez etxe; bete, eta udaletxeko eraikinetan dauden kutxetan utzi behar dira. Urriaren 31n bukatuko da epea, osteguna.

## Landaberriko aldaparen egoera aztertuko dute

Landaberri ikastetxera igotzeko mendi-magalaren azterketa geoteknikoa adjudikatu du udalak. Geología y Geotécnica Larrea S.L. enpresak egingo du inspektzioa eta 5.022 euroko kostua izango duela jakinarazi dute.

**Ipuin kontaketa berezia...**

Asmakizunak, abestiak eta poesiak ... ipuinak lantzeko!

HH3-HH4koentzat

**Urriak 15, 17:45ean**

**Anbulatorio gaineko 2. solairuan.**

Izena emateko:

Ttakuneko bulegoan,

aisia@ttakun.eus

whatsapp: 695785392



<b>ISLANDIA</b> (itsas bidaia)	<b>NORVEGIAKO FIORDOAK</b> (itsas bidaia)	<b>ERRUSIA</b>
<b>ZETAREN BIDEA</b> (Uzbekistan)	<b>TALDE BIDAIAK</b> Denboraldi aurrerapena	<b>ESLOVENIA &amp; ISTRIA</b>

**NOAOO BIDAIAK**  
T: 943 373 613  
info@noaoa.eus  
Hipodromo Etorb. 10, Lasarte-Oria





Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuen Koordinakundeko kideak, batzar baten ostean. TXINTXARRI

# "Norbaitek erantzun beharko die gure eskaerei"

## JESUS OCEJA ETA MARISA ZUBIRI

LASARTE-ORIAKO PENTSIODUNEN ETA ERRETIRATUEN KOORDINAKUNDEKO KIDEAK Madrilen egingo den manifestazioa "udazken beroaren" lehenengo mobilizazioa da

### Nerea Eizagirre

Lasarte-Oriako koordinakundeko kideek ez dute atseden askorik izan uda honetan. Batzuk Bat-Etorri kolektiboaren sorreran izan dira lanean, eta, beste batzuk, urriaren 16an Madrilen egingo den manifestaziorako autobus bidaia antolatzen. 2018ko urtarrilean kalera atera ziren haien aldarrikapenak egiteko. Ez da aldaketarik egon eta bost eskaerekin aurrera darraite: 1.000 euroko pentsio duinak; KPIaren igoera; emakume eta gizonen arteko soldata arrakalarik ez; pentsio publiko duinak eta ez pribatuak; eta, azkenik, 2011. eta 2013. urteetako legeak bertan behera uztea.

### Pentsiodunen aldarrikapenak Lasarte-Oriatik Madrilerara egingo dute saltoa urriaren 16an...

**Jesus Oceja:** Ez gurek bakarrik. Madrilgo manifestaziora probintzia guztietako autobusak joango dira.

Ez dakigu zergatik, baina guri egokitu zaigu Gipuzkoako autobusak antolatzea eta oso pozik gaude, bosgarren autobusaren bidean gaude-eta. 270 bat pertsona izango dira Madrilerara joango direnak.

**Marisa Zubiri:** Egunean bertan joan eta etortzeko bidaia izango da eta askorentzat oso egun nekeza izango da. Baina jendea erreibindikatzeko gogoekin dago.

### Baina autobusez ez ezik, oinez ere badoa jendea...

**M.Z.:** Duela bi astetik badaude bi zutabe: bata iparraldetik, Bizkaitik zehazki atera dena eta bestea Andaluziatik. Madrilerara bidean daude eta bertan bat egingo dute autobusez joango garenokin.

Madrilen txaleko horiak eta txapela horiak jantziko ditugu; jendeak ez dezan pentsatu pasean goazela. Gure eskaerak idatziz aurkeztuko dizkiogu momentuan dagoen politikariari eta ea nork eta zer erantzuten duten. Erantzun behar dute. Orain ez bada, hemendik hiru edo bost urtera,

baina norbaitek erantzun beharko du. Gu ez gara nekatuko.

### Hauteskunde berriak datoz. Zer egingo du pentsiodunen mugimenduak?

**M.Z.:** Pentsioen alde egiten dugun pertsonen gure eskaerekin bat datorren alderdiaren alde egingo dugu. Dena delakoarekin. Guk gure eskaerei irtenbidea ematea nahi dugu, ez besterik. Horregatik, gure goiburua *Edonork gobernatzen duela ere, pentsioak babestu behar dira* da.

### Manifestazioaz eta asteleheneroko bilkurez gain, mobilizatorik aurreikusten duzue?

**J.O.:** Urriaren 1ean, adineko pertsonen nazioarteko eguna izan zen eta Lasarte-Oriaren igandean egin zen bazkarian solasaldi txikia egin genuen. Mugimendu pentsionistari buruz hitz egin eta Madrilerara joateko gonbita egin genien.

Bestalde, EAE eta Nafarroa mailan manifestazio bat antolatzen ari da, Espaniar Estatu osoan ere egitea espero da. Azaroan izango da, udazken beroa deritzogunaren barruan. Data oraindik zehazteke dago. Baina udazkena beroa izango da.

### Bat-Etorri kolektibo berria ere sortu da, zertan datza?

**J.O.:** Pentsionisten mugimendua hain da anitza eta transbertsala, non plataforma batzuk mugimendu pentsionista eta beste mugimendu batzuk nahasten joan diren. Gipuzkoako gehiengoak zenbait arlo edo ekimen beste eragile batzuei dagozkiela uste dugu. Hala nola, greba orokor bat sindikatuei dagokiela uste dugu, edo Martxoaren 8ko mobilizazioak, mugimendu feministari.

Bi korrante horien artean pauso txikiak egon dira elkar ulertzeko, eta, ondorioz, Bat-Etorri kolektiboa sortu da irailaren 1ean. Horretan,

Gipuzkoako plataformen %90a eta hainbat erakunde edo elkarte bildu gara pentsionistek pentsio duinen aldarrikapena soilik egingo dugula baieztatzeko. Horrek ez du esan nahi, gure aldarrikapenak egiteko tartea ematen digun beste mobilizazio batean parte hartuko ez dugunik.

Bat-etorri kolektiboan talde bat astero lan egiten, gure ikuspuntutik, pentsioen mugimenduak dituen oinarriak eta arrazoibidea zehazteko. Madrilen argitaratu emango da ziurrenik eta jendea banatuko zaio. Gure arloa ez da politika, gure eremua pentsioak dira eta horiek hobetzeko lan egitea. **Belaunaldi berriak ere zuen mugimenduan nola txertatu pentsatzen ari zarete, ezta?**

**M.Z.:** Gure kezketako bat etorkizunetako langileek pentsioak izango ote dituzten da. Arazoak eta errealitateaz kontziente izatea nahi dugu. Langile askok etsi dute, pentsiorik jasoko ez dutela pentsatzen baitute. Horregatik, gazteei gure aldarrikapenen berri eman nahi diegu.

Aurreko ikasturtean institutuan egon ginen gazteekin hizketan, eta harrera oso ona izan zuen. Horrelako ekimenei jarraipena eman nahiko genieke.

Talde edo mugimendu ezberdinetara ere iritsi nahi dugu. Orain ez dira horiek protagonistak, lanean edo ikasten daudelako, baina etorkizunean haiek borrokatu beharko dute pentsioen alde. Guk beste batzuen lema hartu dugu eta hurrengo belaunaldietan hazia eriteko betebeharra dugu. Hurrengoek gure testigua hartu nahi izatea da beste kontua. Horrela ez bada, guztia galduko dugu. Ez baita oraingo arazoa; etorkizunean ere egongo den arazoa da.

## Herriko bikoteen urrezko ezteiak, omenaldi astearen amaiera

Musika, dantza, kirola eta bazkari herriko jendetsua ere egin dituzte pertsona adinduen omezko astean, asteburuan

### Txintxarri

Asteartean, urriaren 8an, amaitu ziren pertsona adinduen omeneko astearen ekimenak. Urrezko ezteiak ospatu zituzten 23 bikote omendu zituzten Biyak Bat elkarteak eta udalak.

Meza, luntxa, opari banaketa eta bazkaria. Egun ederra igaro zuten omenduek.

Bestalde, osasuntsu eta sasoiko daudela erakutsi zuten asteburuan Biyak Bateko kideek. Lerroko dantza erakustaldia,

martxa erregulatua eta abesbatzako kideen emanaldi bikoitza egin zuten.

Ostiralean, berriz, gaztaroko kanta zaharrak gogoratu zituzten Duo Imperialen eskutik eta igandean, Amaia Gonzalez dantza eskolako kideen ikuskizunaz gozatu zuten.

Ospakizun guztietan ezinbestekoa da janaria. Horregatik, ohitura denez, Michelingo frontoian elkartu ziren erretiratuak, elkarrekin bazkaltzeko, igandean.



Urrezko ezteiak ospatu zituzten bikoteek oroigarriak jaso zituzten asteartean. TXINTXARRI



# EAJk, mugikortasuna hobetzeko mozioa

Kale Nagusia astean zehar '30 gune' izatea eta bidegorri sareko proiektua berritzeko 2020. urteko aurrekontuetan diru partida bat egotea eskatuko du. Atsobakar kirol eremuko proiektuan aurrera pausoak emateko eskaera ere egin du alderdi jeltzaleak

## Txintxarri

Astelehenean, urriaren 14an, Lasarte-Oriako udalbatzarrak ohiko bilkura egingo du. EAJk Lasarte-Oriako barne mugikortasunari buruzko eztabaida egitea proposatuko du aurkeztuko duen mozioan.

Eskaera nagusia asteburuetan Kale Nagusia Tajamarreko biribilguneetik Ola Kalera itxi, eta astean zehar eremua 30 gune izatea da, oinezkoek eta bizikletek lehentasuna izateko.

Bestalde, bidegorri sarea osatu behar dela uste du alderdi jeltzaleak, eta, horretarako, 2020. urteko aurrekontuetan proiektua berritzeko dirua aurreikustea

eskatzen du. "Interesgarria iruditzen zaigu, Erribera kalea eta Oria Etorbideko bidegorriaren lotura konpontzea, arkupeekin eta oinezkoentzako pasabide batekin, baina uste dugu ez dela nahikoa udalerriko bidegorri sareari erantzun bat emateko", azaldu du Jon Antxordoki EAJko bozeramaileak.

Eskaera horretan, gainera, herritarren parte-hartzea ere aurreikusten du alderdi jeltzaleak. "Interesgarria iruditzen zaigu bidegorriaren barne-sare berria parte-hartze prozesu baten bidez egitea, herritarrek orokorrean, kirol-elkartek eta ikastetxeetako

guraso-elkartek ere parte har dezaten".

## Atsobakarreko kirol eremua

Bestalde, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalen arteko desadostasunak bideraturik, EAJk eskatu dio alkateari Atsobakarreko kirol ekipamenduarekin "buru-belarri jartzea", prentsa ohar bidez adierazi duenez.

Usurbilgo Udalak irailaren 26ko udalbatzarrean onartu zuen Atsobakarreko espazio publikoaren antolamendu xehatuaren hasierako aldaketa. "Usurbilek erreklamazioak aurkezteko hogeit eguneko epea



EAJko zinegotzi Boris Nogales eta Jon Antxordoki, '30 gune' eremuan. TXINTXARRI

zabaldtu zuen irailaren 27an; gure iritziz, herritarrentzako hain onuragarria izango den proiektua dela ikusita, nork erregistra dezake erabaki honen kontrako erreklamazioerik? Horregatik, eta Michelingo kirol gune berriaren parte-hartze prozesua ireki dela ikusirik, Lasarte Oriako alkateari Atsobakarreko guneari bidea ematea eskatzen diogu".

Era berean, ospakizun zibilen araudi proposamenari lau zuzenketa aurkeztu dizkiola ere jakitera eman du EAJk.

"Ekarpenak ospakizun zibilen araudia zabaldtu eta herritarrek ospakizun zibilak egiteko bideak erraztera zuzenduak dira", EAJren aburuz.

Zuzenketa honakoak dira: eskaerak bide elektronikotik egin ahal izatea; bi eztei mota ezberdintzea, ohiko ezkontza eta sinadura ekitaldia eta azken horren eskaera epea bi hilabete baino gutxiagokoa izatea; erabiltzaileak lokalak erabili ostean guztia jasotzea; eta, azkenik, hiletetan hilkutxa bertan ez egotea.

# JOSEBA TAPIA

ZUZENKO DISKOAREN GRABAKETA

## USURBILEN

Urriak 25

Sutegi 20:00 eta 22:30

SARRERAK: 10€ aldeaz aurretik  
Usurbilgo Bordatxon, Txirristran  
Lizardin eta Noaua!n eta egun berean 13€ Sutegin

Argazkia: Kepa Gonzalez



# Sasoian daude festak

## Sasoetako plazak jendez, zereginez eta jai gogoz bete dira



Suziri ugari piztu zituzten Andatza plazan jaien hasieran. Asteburuan beste asko bota dituzte. TXINTXARRI



Larunbat arratsaldeko helduen danborrada izan da jaietako ekimen jendetsuenetako bat. TXINTXARRI



Mostatxo tabernako Eduardo Alonso eta Sole Senperena senar-emazteak izan ziren pregoilariak. TXINTXARRI



Los chavales de Martijak antolatutako kirol jardueretan goiz atsegina pasatu zuten gaztetxoek. TXINTXARRI



Batzuei beldurra eman arren, atzetik korrika aurretik baino haur gehiago izan zituzten buruhandiek. TXINTXARRI





Auzoko danborradak Jokin Goenaga omendu zuen berak sortutako marbxa jo ondoren. TXINTXARRI



Larunbat iluntzean ilara luzea osatu zen Jaizkibel plazan parrilan erretako sardinak jateko. TXINTXARRI



Euriak utzi zien tartean, primeran aritu ziren haurrak makilei eta danborrei eragiten. TXINTXARRI

Urria heltzearekin batera Sasoeta da festazaleen gunea. Eguraldia lagun izango ez zutela bazirudien ere, euriak eutsi egin zion ia azken unera arte. Hura zen Sasoeta Sasoian bizilagun elkarteko presidente Ángel Gonzalezen eskaria txupina piztu ondoren, ateri mantentzea jendea parte hartzera anima zedin. Eta egin dute. Tantoren bat izan bada ere, festa giroz blaitu dira auzotarrak. Zapi urdinak lepoan, kamiseta soinean eta irribarra ahoan aurre egin diete zeruko lainoei.

Zaparradarik izan bada, ekimenena izan da. Ostiral arratsaldean Mostatxo tabernako Sole Senperena eta Eduardo Alonso senar-emazteak izan ziren festaren metxa pizteko arduradunak. Etxafuego horren ondoren, beste asko izan dira asteburuan, jarduera askoren atarian. Ez dira gutxi izan adin guztietarako aukerak: mus eta futbolin txapelketak, zunba erakustaldia, zezensuzkoa, herri bazkaria, patata tortilla lehiaketa, sardina jatea... Asteburuko hitzordu nagusia, hala ere, larunbateko danborrada izan zen. Jende ugari bildu zen Andatza plazan eta une hori baliatu zuten Jokin Goenaga omentzeko. Berak sortutako ereserkia jo ondoren, orogarri bat eman zion bizilagun elkarteak. Martxa pare baten ondoren, auzoan barrena ibili ziren makilak astintzen.

Haur danborradak, aldiz, bestelako zortea izan zuen, euriak nahi baino lehenago amaitzera behartu baitzuen. Edonola, parte hartzeatik emandako goxokiak nahikoa kontsolamendu izan ziren haurrentzat. Eta ez da harriztekoa. Jaien errege-erreginak haurrak izan baitira, zalantzarik gabe. Tarte berezia izan dute egitarauan eta gogotsu parte hartu dute ekimenetan. Tai gabe dantza egin zuten txiki diskoan, eta indar berarekin Los chavales de Martijak antolatutako kirol jardueretan parte hartu. Nekatzen ez direnez, puzgarrietan saltoka ibili edo buruhandien aurretik nahiz atzetik korrika ibili dira ere, eta eskulanetarako abilezia probatu buruarin tailerlean.



Hainbat familiak parte hartu zuten Gaztelekuan aurrera eramandako buruarinak egiten ikasteko tailerlean. TXINTXARRI



Roberto Ortega, Patricia Gómez eta Mario Quirogak egin zituzten patata tortilla goxoenak. TXINTXARRI



# Indarrari eusteko, elkarlana eta sorkuntza

**JULENE ILLARRAMENDI ETA MIREN CUERDO 'IZAN IÑURRI'-KO SORTZAILEA ETA KIDEA**  
Minbiziaren bizipenetatik abiatuta, gaitza dutenei eta haien ingurukoei laguntzeko helburuz sortu dute 'Izan Iñurri' egitasmoa. Hilabete gutxiko ibilbidean arrakasta handia lortu du

## Maddi Zaldúa

Inurrien arteko komunikazioa ezinbestekoa da inurritegiak behar bezala funtziona dezan. Elkarri lagunduz, batak besteari bultzada emanaz lortzen dute inurritegia aurrera ateratzea. Txikitasunetik, baina egitura antolatu eta ordenatu baten bidez, banakoaren senak bultzatuta

jartzen dira martxan. Banako horri jarraitzeko, ordea, ezinbesteko dute taldean jardutea.

Antolaketa antzekotik sortu du Julene Illarramendik (Lasarte-Oria, 1997) aspalditik buruan bueltaka zebilkion proiektua, eta orain hilabete eta erdi hezurmamitu da: *Izan*

*Iñurri*. Minbizia dutenei eta haien ingurukoei laguntzea da egitasmoaren helburua.

Illarramendik hamar urte zituela diagnostikatu zioten bere amari, lehenengoz, bularreko minbizia. Gaztetxoegia zen orduan gertatzen ari zenaz jabetzeko, baina beldurra sentitu zuela oso gogoan du. Amari bularrean ebakuntza egin eta prozesu zail bat igaro zuten arren, "amaiera ona" eduki zuen.

Sei urte beranduago, ordea, berriro ere gaixotasuna agertu zitzaion, bigarrenengoz. Garai hartan, gaitzaz eta horrek dakarrenaz jabetu zen alaba zaharrena, Julene. Amari berriro ere ebakuntza egin, eta bular osoa kendu zioten. "Hau ere oso gogorra izan zen, baina oraingoan ere, gaixotasunari aurre hartzeko borrokak utzitako zenbait aztarnez gaindi, gaixoaldi bat izan zen".

Pare bat urte besterik ez ziren pasa gero, berriz ere "hainbeste gorroto" zuten hitza etxean sartu zenerako. Kolpe latza izan zen azken hura; metastasia zuen amak. Indartsu borrokatu zuten beti, positibo egunerokoan, aurrera egiteko gogoz, baina, zoritxarrez, amak, ezin izan zion gaitzari aurre egin.

Bizitako guztia eta gero, barrua askatu eta gaixotasunaz hitz egiteko beharra sentitu zuen Illarramendik, eta sare sozialetan senidearen istorioaren berri



Miren Cuervo ezkerrean eta Julene Illarramendi eskuinean. Juleneren ideia heldu eta elkarrekin,

ematea erabaki zuen. Garbi, beti bezala. Amaren istorioaren berri ematearekin batera, martxan jarri nahi zuen proiekturako laguntza ere eskatu zuen, eta berehala luzatu zioten lehen eskua. Miren Cuervo (Lasarte-Oria, 1995) jarri zen Illarramendirekin harremanetan. Horrela, martxan hasi baino lehen, Ione Zabalarri (Lasarte-Oria, 1996) deitu zion Illarramendik, esku bat bota ziezaikeen galdetuz. Azken honen baieztoko borobila jasota, "behar zenerako prest" agertu ziren bi lagunak -Cuervo eta Zabala-, eta egitasmoari inurri taldeen gisan ekin zioten; elkarrekin.

Hasierako ideia txikiak, ustez sinpleak ziruditenak, ordea, handi bihurtzen ari dira, pixkanaka. "Proiektuari forma ematen hasi ginenean, gauzak ondo egin nahi genituen, gure etika eta filosofiarekin bat egingo zuen egitasmoa sortu nahi



genuen, eta horretarako, lan handia egiten ari gara".

Modu batera edo bestera, minbizia bizitzen ari direnei laguntzeko sortu dute *Izan Iñurri*, baina ez horretarako bakarrik; tabuak hautsi nahi dituzte, isiltasunak entzunarazi.

Bularreko minbiziaren inguruan jasotzen den informazioa, ia beti dator zapi edota xingola arrosa batez apaindua, baina, horretan, pauso bat harago egin nahi izan dute hiru herritarrek. "Julenek beti hitz egin digu oso garbi, eta erabateko gardentasunez landu nahi dugu proiektua", azpimarratu du Cuervok.

Egunerokoan "oso gutxi" hitz egiten den gaia dela argi ikusten dute: "Hizketarako gai tabuetako bat da, eta guk horrekin apurtu nahi dugu, ikusgarritasuna eman nahi diogu; horrek, gaixotasuna

**"ARGITU NAHI DUGU GURE PRODUKTUAK EZ DIRELA EROSTEN, DONAZIO TRUKEAN ESKAINTZEN DITUGU"**



Julene Illarramendiren amaren istorioa irudikatzen duen ilustrazioa. IZAN IÑURRI





Julene Zabalaekin batera, ari dira izan Inurriekin lanean. TXINTXARRI

beste modu batera bizitzen lagunduko digu”.

Gardentasunaren bide horretatik sortu dituzte lehen ilustrazioak ere; Illarramendiren amaren istorioan oinarrituta egin dituzte.

Indarrari eman nahi izan diote garrantzia berezia, Illarramendiren amaren borrokatzeko grina izan baita oinarri, gaixorik egon zen urte guztietan, eta horrek, aldi berean, "indartsuago" egin du familia. Horregatik marraztu du Miren Cuerdok -bera da ilustrazioaren egilea; Janire Arroyoren kolaborazioarekin batera osatu du- sgar bat ilustrazioaren erdian. Elementu horren atzean, hiru gorputz agertzen dira; amarena dago erdian. Bi alabei helduta agertzen da, eta bular baten lekuan, orban irudikatu dute.

Hain justu horrexegatik, gaixotasunaren ondorioetako bat ikusgarri egiteko.

Alde banatan bi alaben gorputzak daude, eta indarrari are presentzia handiagoa emateko, besoak gorantz luzatuta agertzen dira.

Inurriak ikusten dira hiruren gorputzetan. "Amak gustuko zituen inurriak. Tatuatuak zituen gorputzean". Ama-alabek, asmoa zuten elkarrekin tatuaje bera egiteko, baina amaren azken gaixoaldian, tatuajerik ez egiteko gomendatu zioten. "Horregatik, erabaki genuen ahizpak eta biok inurriak tatuatzea". Hortik bilakatu dute egitasmoaren ikur.

Ilustrazio horrekin batera, proiektuaren logoa ere osatu dute. "Sinpleagoa" agian, baina horrek ere berebiziko esanahia duena: inurria. "Gehiegi arriskatu

nahi ez dutenek, erosoago jantzi dezaketela uste dugu".

### Erantzun ezin hobea

Sekulako harrera egin diote proiektuari, orain arte. Hilabeteko bizia besterik ez du, eta dagoeneko, arrakasta handia izaten ari da. "Jendea izugarri gustatu zaio ilustrazioa eta identifikatuta sentitu direla ere esan digu batek baino gehiagok".

Pozarren daude hiru kideak. Noski, izan dituzten donazio kopuruak eragin du sentimentu horretan, baina inguruko eta herriko jendeak erakutsi dien babesak benetan hunkitu du hirukotea. "Hain izan da handia proiektuarekiko erantzuna, non horri aurre egiteko laguntza eskatu behar izan diegun ingurukoei, eta lan handia egiten ari dira", azaldu dute. Adibide bat eman dute. Egunotan, 300 eskaera prestatu behar dituzte, eta hori ahalik eta modu egokienean kudeatzeko, lagunei paketeak egiteko laguntza eskatu diete. Bide batez, jasotzen ari diren laguntza hori guztia eskertu nahi dute: "Horien guztien babesik gabe, ezinezkoa litzateke".

Gaur arte, hiru produktu ezberdin eskaintzen dituzte, donazio truke: helduentzako kamisetak -bi modelo-, haurrentzako kamisetak eta bodiak eta telazko poltsak. AMA izena eman diote produktu sorta horri; batetik, ama baten istoriotik sortua izan delako, eta bestetik, *Izan Inurri* proiektuaren sortzaile direlako.

Etorkizun labur batean, pegatinak eta *print*-ak kaleratzeko asmoa ere badute. "Donazio txikiagoak egin nahi dituztenei ere aukera eman nahi diegu".

## MINBIZIA DUTENEI ETA HORIEN INGURUKOEI LAGUNTZA EMATEKO SORTU DUTE EGITASMOA



Produktu horiek guztiak sortzeko euskal ekoizle txikiekin ari dira lanean. "Badakigu donazioen kostua zertxobait garestitu dezakeela horrek, baina gure etikarekin bat datorren ekoizleekin lan egin nahi dugu, jendeak gustura erabiliko dituen produktuak sortu nahi ditugu". %100 kotoi organikozkoak dira kamisetak, eta poltsak, berriz, birziklatutako materialekin eginak (%100).

### Egitasmo bat baino gehiago

Ama "ondoan sentitzeko" baliogarri zaio Illarramendiri *Izan Inurri*: "Ama hilda dago, baina, aldi berean, hemen dago, gure artean, sortu dugun produktu bakoitzean. Jarraitzen dugu beraz hizketan eta beraz ikasten eta hori, oso polita da. Nik kontatzen dut amaren istoria guztia berak ezin dezakeelako egin, baina istorioa, berea da".


*Izan Inurri*-ra gerturatzen direnen kasuak sakon aztertuko dituzte lasarteoriatarrek. "Istoria guztiak, banan bana entzun, banan bana aztertu eta bakoitzari bere laguntza edo aportazioa egin nahi diogu. Guretzako errazena, donazioen bitartez lortutako dirua kausa berdina laguntzen dituen elkarteetara bideratzea litzateke, baina beste mota bateko laguntza eskaini nahi dugu".

Harremanetarako hiru sare sozial jarri dituzte eskuragai; instagram -@izaninurri-, facebook -Inurri- edota *izan.inurri@gmail.com* posta elektronikoa.

Kasu guztietan laguntzak ez du zertan ekonomikoa izan. Minbiziak eragin ekonomiko handia dakarrela jakina da, baina horrekin batera, bestelako eraginak ere sortarazten ditu, emozionala, besteak beste. Hor ere eragin nahi du hirukoteak, gaixotasuna duen pertsonaren, edo bere ingurukoengan "ezusteko politikak" sortuz: "Indarra behar dutenei, indarra eman nahi diegu". Horregatik, kasu bakoitzaren arabera izango da egingo duten ekarpena; bidaia bat, ileorde bat, laguntza psikologikoa, eta abar.

Julenek ama gaixorik zegoenean egin zioten oparia ekarri du gogora. EITBko *Maite Zaitut* programara joateko proposamena jaso zuen, eta hasieran, zalantzak izan bazituen ere, aurrera egitea erabaki zuen. "Orain, badakit, diruz ordaindu daitekeen ezerk baino poz handiagoa sortu ziola sorpresa hark amari, momentu hartan ez zuen beste ezeren beharrik". Horrelako laguntzak eskaini nahi dituzte: "*Maite Zaitut* txikiak egin nahi ditugu".

Tabuek ez dute lekurik izan elkarrizketa honetarako hitzorduan. Ohi baino zertxobait urduriago joan da kazetaria Illarramendi eta Cuerdorekin hitzartutako zitara, baina urduritasuna ere berehala desagertu da. Gardentasunez, eta batez ere goxotasunez hitz egin dute elkarrekin, eta ordubete pasatxoko hizketaldia, elkarrizketa hunkigarrian bihurtu da. Amaren omenez.







Astearte arratsaldean aurkeztu zuten aurtengo krosa Ostadar SKTko kideek eta zenbait babeslek, Okendo plazan. TXINTXARRI

# Kros herrikoia berritzen, sustraiak ahaztu gabe

Urriaren 27an jokatu da Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia 24. edizioa, igandez. Dena prest du Ostadar SKT egun berezi horretarako. 1 zenbakidun dortsala Fede Otaegi herritarrak eramango du; urtero-urtero parte hartu du lasterketan, 1996. urtetik

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Ostadar SKT 1996. urtean antolatu zuen aurreneko Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. 24 urte pasa dira ordutik, eta aldatu dira hainbat gauza: ibilbidea, parte-hartzaileak eta herria bera. Azken berrikuntzetako batzuk hauek izan dira: patinatzaileek lasterketa propioa daukate; eta, aurten aurrenekoaz, ipar martxan aritzen direnek ere bai. Hori da aurtengo edizioiko "nobedade nagusia", antolatzaileen hitzetan. "Helburua da lasterketa finkatzea eta martxalarien egutegian lekutxo bat egitea". Parte-hartzaileek 5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Gironatik (Katalunia) etorritako talde bat ariko da urriaren 27an, igandea. Ostadar Ipar Martxako kideekin batera pasako dute asteburua: kirol ekintza ugari egingo dituzte; otorduak ere bai.

Beste berrikuntza batzuk krosaren sustraiekin dute zerikusia; probaren erroekin. Kategoria desberdinetan irabazten

duzen lasterkariak ez dute koparik altxako aurten; herriko dendetan, jatetxeetan, tabernetan eta zerbitzu enpresetan erabiltzeko erosketa-bonuak jasoko dituzte. "Lasarte-Oria Bai! egitasmoa jarri zuen martxan Ostadar SKT helburu horrekin, eta krosari ere izen hori jarri zion; filosofia hori oso presente dago proba antolatzen dugunon artean".

Krosaren hazia herriko asfaltoan nola erne den, sustraiak nola bota dituen eta horiek zenbat indartu diren ikusi du Fede Otaegi herritarrak. Orain arte jokatu diren 23 edizioetan parte hartu du. Berak eramango du 1 zenbakidun dortsala 24.ean, "lasterketari erakutsi dion leialtasunagatik", antolatzaileek

**AURREKO URTEKO PROBALDIA ETA GERO, IPAR MARTXALARIEK LASTERKETA EGINGO DUTE AURRENEKOZ**

nabarmendu dutenez. "Fede Otaegiren parte-hartzea ez da mugatzen korrika egitera: beti prest dago itzalpeko lan hori egiteko eta guri laguntzeko. Ez dauka meritu makala".

## Izen-ematea, zabalik

Dagoeneko hasi dira lasterkariak krosera apuntatzen. Momentuz, Internet bidez egin dezakete soilik, [www.ostadarskt.eus](http://www.ostadarskt.eus) eta [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) web orrialdeetan. Urriaren 17tik aurrera, ostegunaz, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian egongo dira Ostadar SKTko kideak, izen-ematea fisikoki egitea nahiago duten pertsonen laguntzen, astelehenerik ostiralera. Ordutegia, honakoa: 17:00etatik 20:00etara. Lasterketa bezperan, 26an, Michelingo frontoira joatea izango da parte hartu ahal izateko beste aukera bat. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era egongo dira. Lasterketa egunean ere bai; 09:00etatik 10:00etara. Egun horretan izena emanez gero, 20 euro ordaindu beharko dituzte

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### IBERDROLA LIGA

**Real Sociedad - Athletic**

Igandea. 16:00. Reale Arena, Donostian.

#### 1. NAZIONALA

**Añorga KKE - Itaroa Huarte CD**

Igandea. 17:30. Rezola, Añorgan.

#### ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

**Tolosa CF - Ostadar SKT**

Larunbata. 17:30. Usabal, Tolosan.

#### ERREGIONALEN GORENGOA

**Ostadar SKT - Sanpedrotarra FE**

Igandea. 11:15. Michelin kirol gunean.

#### JUBENILEN 1. MAILA

**Ostadar SKT B - Danena KE B**

Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.

**Danena KE A - Ostadar SKT A**

Larunbata. 18:00. Elbarrena, Zizurkilan.

#### KADETEEN OHOREZKO MAILA

**Ostadar SKT - Hondarribia FE**

Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean.

#### KADETEEN 1. MAILA

**Ostadar SKT - Intxurre KKE**

Larunbata. 14:30. Michelin kirol gunean.

**Ordizia KE - Ostadar SKT**

Larunbata. 10:45. Altamira, Ordizian.

**Ostadar SKT - Usurbil FT**

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

#### INFANTILEN OHOREZKO MAILA

**Euskalduna SD - Ostadar SKT**

Larunbata. 11:00. Ubitarte, Andoainan.

#### INFANTIL 1. MAILA LAGUNARTEKOA

**Oiartzun KE - Texas Lasartearra CF**

Igandea. 12:00. Karla Lekuona, Oiartzunen.

### ARETO FUTBOLA

#### SENIORRAK, 1. MAILA

**Aurrera KE - Eguzki Aldaz H.K.**

Larunbata. 12:30. Amazabal kiroldegia, Leitzan.

#### SENIORRAK, 2. MAILA

**Eguzki ISU Leihoak - Laskorain KE**  
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.

#### JUBENILAK

**Eguzki 2KN - Lauburu Ibarra KE**  
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

**Summa Aldapeta - Eguzki Balerdi**  
Igandea. 09:45. Egia kiroldegia, Donostian.

#### PILOTA

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA

**Intza - Azkoitia**  
Ostirala. 20:10. Michelingo pilotalekuan.

#### PROFESIONALAK, PROMOZIOKO 4<sup>1/2</sup>

**Elordi - Arteaga II**  
Igandea. 17:00. Jaian Jai pilotalekua, Lekunberrin.

### SASKIBALOA

#### JUNIOR ERRENDIMENDUA

**Ostadar SKT - Hondarribia**  
Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

### ERRUGBIA

#### 12 ETA 10 URTEZ AZPIKOAK

**Txingudiko jardunaldian ariko dira errugbi jokalarik gaztetxoak.**  
Igandea. 10:30. Hondarribiako hondartzan.

#### ESKOLA JARDUNALDIA

**Lehen Hezkuntzako 3. mailako gaztetxoek eskola jardunaldi batean parte hartuko dute.**  
Larunbata. 09:30. Asti, Zarautzen.

### LASTERKETAK

#### HIRU HONDARTZAK 30. GRUPO DELTA KROSA

**Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko dute Hiru Hondartzak krosetan. 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute.**  
Igandea. 10:00. Donostian.

kirolariek. Ordura arte, 12 – Ostadar SKTko bazkide direnek, berriz, 8–.

Lasterketen ordutegiak hauek dira: patinatzaileek 10:28an ekingo diote probari; bi minutu beranduago, lasterkariak; eta, azkenik, ipar martxalariak. Geltoki kaletik aterako dira. Patinatzaileek eta korrikalariek 10 kilometroko ibilbidea bete beharko dute.

## Korrika Festaren XIX. edizioa

Ohi bezala, helduak helmugaratu eta gero egingo dute lasterka gaztetxoek; 12:15ak aldera hasiko

**EROSKETA-BONUAK JASOKO DITUZTE KATEGORIA DESBERDINETAKO IRABAZLEEK**

dira. Lehenengo bi lasterketak infantilenak eta kadeteenak izango dira. Jarraian, beste hauek: bost urtekoena; zortzi eta bederatzituztekoena; hamar eta hamaikaturtekoena; eta hamabi eta hamahirukoena. Gero eta urte gehiago izan, orduan eta distantzia luzeagoa bete beharko dute urriko azken igandean: 100, 150, 400, 800 edo 1.200 metro. Geltoki kalea zeharkatuko dute. Kultur etxeko kafetegian izena eman beharko dute guztiek, 5 euroren truke.

Babesleei eta krosaren egunean lanean aritzen diren laguntzaileei aitortza eginez bukatu zuten astearteko agerraldia Ostadar SKTko kideek. Etxezarreta harategia, Avenida taberna, Frutas Ruiz fruta-denda, Ventanas San Miguel, Lasarte-Oriako Udala, Bertako Igogailuak eta Factory dira babesleak. "Eskerrak eman nahi dizkiegu denei".



# Esfortzua, nekea eta kilometroak partekatuz

Trinko triatloi taldeko sei kidek 'Epic Landus Swinrun Race'-n parte hartu zuten igandean. Bikoteka proba luzean eta motzean lehiatu ziren herritarrak. Helburua bete zuten guztiek, nahiz eta kirolarietako batzuk entrenamendu falta somatu

## Txintxarri

Duatloi bat bukatzea ez da gauza makala, baina proba bikoteka egin eta 10 metro baino gehiago banandu ezin zarenean bada kontuan izan beharreko beste zerbaitekin: konfiantza. *Epic Landus Swinrun Race* bikotekako proba jokatu zen urriaren 6an, Uribarri-Ganboako urtegian. Bertan Trinkoko hiru bikote izan ziren lehian eta ibilbidean zehar, haien arteko konpliziateari neurria hartu zioten.

Narrea Salsamendi eta Imanol Arteaga bikotekako proba luzea egin zuten. Urtegi inguruko 34,7 kilometroko ibilbidea egin zuten lasarteoriatarrek, Ibilbidean zehar, hamazazpi tartetan korrika eta hemeretzi tartetan igerian egin behar izan zituzten.

Salsamendiren lehen aldia zen proba honetan; Arteagak, berriz, iaz egin zuten lehenengoz, Asier Gorostegirekin. "Lehenengo urtean parte hartu nuen eta Naroari polita iruditu zitzaion bikotekako proba izatea. Aurten biok egitera animatu gara. Proba modura Gironan egin genuen bat apirillean, eta, ongi joan zela ikusita, lasterketa luzea egitera animatu ginen".

Proba aurreikusitako bezala joan zela azaldu digu Arteagak. "Lasai hartu genuen hasieran. Proba



Epiz Landus Swinrun Racen parte hartu zuten Trinkoko kirolariak. TRINKO

erdian, nekea pilatzen doa, baina aurrera egitea lortu genuen. Gure helburua bost ordu eta erdian amaitzean zen eta bi minutu gehiago behar izan genituen".

Enaitz eta Iñigo Ibarburu anaiek eta Asier Gorostegik eta Mikel Izagirrek osatutako bikotek, berriz, ibilbide motza egin zuten. 19,6 kilometroko proba: 16,7 kilometro lasterka eta 2,9 km. igerian.

Ibarburu anaiek duela bi urte parte hartu zuten lehenengoz proba motzean eta orduko denbora hobetzea zuten helburu.

Iñigok onartu duenez, prestaketa falta sumatu zuten lasterketan eta 30 segundo besterik ezin izan zituzten irabazi. "Indartsu hasi genuen proba. Lehenen artean joan nahi genuen. Trinkoko beste bikotekarekin pike sanoa izan genuen 6 kilometroan eta hurrengo

igeriketa zatian atzean utzi genituen. Zuzatetik bigarren aldiz pasatzean muskularki eta hauspoz hustu nintzen. Behin geratu behar izan nuen, bareak helduta. Azken kilometroetan eta tarteetan Enaitzen erritmoa mantentzen saiatu nintzen".

Asier Gorostegi eta Mikel Izagirrerentzat abentura izan zen. Bikote bezala lehen aldia zuten eta Izagirrek estreineko egiten zuten proba.

Aurreikusitako bezala, 02:45etik gertu iritsi ziren helmugara. Izagirrek "oso gustura" amaitu zuten; Gorostegiri luze egin zitzaion ordea. "Iaz proba luzea egin nuen eta motza azkarragoa da. Mikel ni baino hobeto prestatua zegoen eta, nahiz eta lasai hartzeko asmoa izan, bere erritmoa mantendu behar nuen".



Arteaga II.ak Agirreren aurka galdu zuen lau eta erdiko promozio txapelketan. TXINTXARRI

## Arteaga II.ak, hasiera txarra lau eta erdiko promozio txapelketan

Lasarte-Oriako pilotariak lehen faseko hurrengo partidak irabazi beharko ditu txapelketan aurrera egiteko

### Txintxarri

Axier Arteaga, Arteaga II pilotaria bakarkako lau eta erdiko promozio txapelketa jokatzeko ari da. Asteartean hasi zuen lehiaketa Agirreren aurka eta ezin izan zuten garaipena erdietsi, ezta udako dinamika bikaina jarraitu.

Agurainen jokatuako partidak berdindua zirudien, bederatziko berdinketara arte. Agirrek orduan aurre hartu zuten. Kantxaren ezaugarriez baliatu zen eta Arteaga II.ak ez zuen aukera askorik izan. Azkenean, 22-11 amaitu zen norgehiagoka.

Bakarkako lau eta erdiko promozio txapelketa bi multzotan banatu da eta A taldean lehiatuko da Arteaga II herritarra. Agirrez gain, Egiguren V eta Elordi izango ditu arerio.

Txapelketan aurrera egiteko gainerako bi partidak irabazi beharko ditu Lasarte-Oriako pilotariak. Elordiren aurka

jokatuko du igandean, urriak 13, Lekunberrin eta fase honetako azken buruz burukoa, urriaren 20an, igandea izango da. Egiguren V. izango du aurrez aurre.

Talde bakoitzeko bi onenak final-erdietarako sailkatuko dira. Partidak azaroaren 27an jokatu dira. Txapelketako hirugarren postua azaroaren 2an erabakiko da: finala, azaroaren 9an.

**Intzako seniorrek, zorterik ez**  
Lasarte-Oriako bestalde, Gipuzkoako txapelketako bi partida ikusi ahal izan ziren Michelin pilotalekuan eta Intzako pilotariak ez zieten ikusleei zorion momenturik eman.

Artetxe-Elola 1. mailako bikotekako 11-22 galdu zuten Pagazpe taldearen aurka.

2. mailan aldiz, 16-22 gailendu zitzaizkion Azkoitia 1 taldeko pilotariak Urkia eta Iruretagoienak osatutako bikoteari.

# txintxarri

**Adi! Bertan zure zerbitzuak iragartzeko toki aproposa. Egin ezazu erreserba!**

TXINTXARRI PUBLIZITATEA: [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
Tel: 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

**2 zenbaki berezi kaleratuko ditugu**



**urriaren 25ean  
eta urriaren 31n**



# Ibilbideen eguna, Buruntzaldea ezagutzeko

Eskualdeko landa-ingurunea ezagutzera emate aldera, XII. Ibilbideen Eguna antolatu dute Buruntzaldeako udaletako kirol zerbitzuek, igandean. Lasarte-Oriatik Andoainerako bidea mendian barrena egitea proposatu du Ostadar SKTko mendi sailak; 09:00etan aterako dira

## Txintxarri

Buruntzaldeako XII. Ibilbideen Eguna antolatu dute eskualdeko udaletako kirol zerbitzuek. Igande honetan izango da, 08:00etatik 14:00etara. Bide horietako batzuk herritik igaroko dira. Lasarte-Oria eta Andoain bitartekoa -7,9 kilometro ditu luze-, esate baterako: Ostadar SKTko mendi saileko kideek proposatu dute mendian barrena egitea, Buruntzara igota. 09:00etan aterako dira, San Pedro eliza alboan egongo den postutik. Bertan izena eman beharko dute interesa daukatenean.

Herritarrek badituzte aukera gehiago iganderako: joan daitezke Lasarte-Oriatik Urnietara, oinez edo bizikletaz. 3,9 kilometrokoa da ibilbide hori. Edo beste hau: Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga, 9 kilometrokoa. Hori ere oinez edo txirringaz egin dezakete. Bideei buruzko informazio-panelak jarriko dituzte herrian; trazatuak, profilak eta distantziak erakutsiko dituzte. Aurten berritu dituzte. Udalerrri bakoitzari identifikazio-kolore bat eman diote: Lasarte-Oriarena urre zaharra da.

Ibilbideen egunean parte hartzen duten herritarrek autobusean bueltatu ahalko dute Lasarte-Oriara. Aginagan dagoen gasolina-



Lasarte-Oria eta Andoain artekoa da Buruntzaldeako ibilbideetako bat. TXINTXARRI

zerbitzugunetik, Ezpaldikotik, aterako dira ibilgailuak; 12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan. Tajamarreko biribilgunean egingo dute geldialdia, ordu laurden beranduago. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek ibilbideak hasi aurretik jasoko duten txartela aurkeztu beharko dute, zigilatuta.

## Eskualdea ezagutarazteko

Joan den astean aurkeztu zuten Buruntzaldeako XII. Ibilbideen Eguna eskualdeko udaletako kirol zerbitzuetako arduradunek. "Buruntzaldeako landa-ingurune naturalaz gozatu dezakegu

egitasmo horri esker. Edozein publiko motarentzat aproposa da; helburua ez da lehiatzea".

Bost ibilbide diseinatu dituzte antolatzaileek. Horietatik hiruk zeharkatzen dute Lasarte-Oria. Beste bi bideak hauek dira: Andoain-Urnieta, 4,8 kilometrokoa; eta Andoain-Usurbil, 14,9 kilometrokoa.

Kontrol eta anoa postu bat egongo da herri bakoitzean -Usurbilen, bi-, argibideak emateko eta janaria eta edaria banatzeko. Lasarte-Oriakoa San Pedro eliza ondoko plazan jarriko dute, 08:00etatik 14:00etara.



Julen Campo hegaleko jokalarri trebea taldera bueltatu da aurten. TXINTXARRI

## Bana berdindu du Ostadarrek Allerruren aurka, Michelinen

Urdin-beltzek kategoriako oilarretako baten aurka jokatu dute, eta maila ona eman; partidarik ez dute galdu oraindik

## Txintxarri

Sasoï betean ekin dio ligari Erregionalen Gorengoak. Lau partida jokatu ditu orain arte, eta guztietan poltsikoratu ditu puntuak: bi irabazi ditu, eta berdindu beste biak. Azkena, joan den asteburuan, kategoriako oilarretako baten aurka: Ostadar SKT 1-1 Alerru KJKE. Julen Bermejo erdilariak sartu zuen urdin-beltzen gola, 63. minutuan. Etxean urratutako puntuarekin, zortzi ditu Raul Rodriguezek zuzendutako taldeak; laugarren postuan da sailkapenean.

Ohorezko Erregionalak ezin izan zuen sasoïko bigarren garaipena erdietsi; 1-3 galdu zuen Nerea Quiñonesek eta Alex Altunak zuzendutako taldeak Leintz Arizmendiren aurka. Ederki ekin zion neurketari herriko taldeak, eta berehala

aurea hartu markagailuan: 10. minutuan sartu zuen 1-0ekoa Nora Unanuak. Donostiarrek berehala sartu zuten banakoa, ordea; beste bi golak, aurreneko zatia bukatzetik gertu. Saiatu ziren urdin-beltzak egoerari buelta ematen, baina ezin izan zuten. Lau puntu lortu dituzte hiru partidatan, eta zortzigarren postuan dira.

## Reala-Athletic, igandean

Reale Arenan jokatu dute euskal derbia Realak eta Athleticek, igandean, 16:00etan. Txuri-urdinek ongi ekin diote denboraldiari: ez dute jokaturako lau partidetatik bakar bat ere galdu. Iraia Iparragirre herritarra minutu asko jokatzen ari da Iberdrola liga hasi denetik: neurketa guztietan sartu du entrenatzaileak hamaikakoan.

## Amestutako hasiera: Samaniego Orixe 1-7 Eguzki Garoa Taberna

Asteburuan jokatu duten lau talde federatuek pilatu dituzte puntuak; Eguzki Aldazek 4-2 irabazi dio Herrikideri

## Txintxarri

Asteburua ez da perfektua izan, baina ia-ia. Eguzki klubeko lau talde federatuek jokatu dute asteburuan; lauek poltsikoratu dituzte puntuak. Irabazi egin dute bi seniorrek; jubenilek, aldiz, berdindu. Gipuzkoako 2. mailako Eguzki ISU Leihokoek

atseden hartu du jardunaldi honetan. Categoria bat gorago ari da lehiatzen Eguzki Aldaz Hartz Klinika. Ezin hobeto ekin dio ligari. Pasa den astean bezala, irabazi egin du, 4-2, Herrikideren aurka. Bitik bi. Liderrak dira.

Senior mailan ari den Eguzki Garoa Tabernak etxetik kanpo

egin du debuta. A zer nolako debuta: 1-7 garaitu du Teep Samaniego Orixe, Tolosako Uzturpe pilotalekuan. Berde-horiak nagusi izan ziren ostiralean jokatutako norgehiagokan, hasi eta buka.

Eguzki 2KN taldeak ere Tolosan jokatu zuen asteburuan, eta hiru puntuak bueltan ekarri Lasarte-Oriara: 4-6 irabazi zion Laskorain KEri. Eguzki Balerdi Harategiak denboraldiko aurreneko puntua zakuratu zuen larunbatean, Maialen Chourraut kiroldegian. Kutturru KErekin neurtu zituen indarrak, eta hiruna berdindu.



Denboraldiko aurreneko hiru puntuak zakuratu ditu Eguzki Garoak. TXINTXARRI



## ZORION AGURRAK



**Manolo**  
Zorionak!! Ongi pasa zure egunean emaztearen eta semearen partetik!!!



**Chloe**  
Zorionak printzesa zure lehenengo urtebetetzean! Etxeko alaitasuna zara! Aita eta amaren partetik.



**Txaro**  
Zorionak, barraskilo! Et et et... 61 urte aurten e! Beti bezain alai jarrai dezazula, eta ospatu ditzagula elkarrekin, hemendik aurrerakoak ere!

## JAIOTAKOAK

**Eder Vicente Lopez.** Urriaren 1ean.  
**Iraia Sanchez Aguirre.** Irailaren 29an.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERITZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zorientzeko:

## Internet

Txintxarri.eus-en  
txintxarri.eus/zorionagurra eta  
Bidali zure zorion agurra  
formularioa bete.  
Urtebetetze egunean bertan  
argitaratuko da webgunean eta  
ostiralean Txintxarri paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali  
txintxarri@txintxarri.eus  
helbidera, eta idatzi:  
izen-abizenak, urtebetetze-  
eguna eta nahi duzun testua. Ez  
ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## HILDAKOAK

**Joxepa Lazkano Tolosa.** Urriaren 8an.  
**Saturnino Eguileta Martinez De Lagran.** Urriaren 8an.  
**Marcelina Martin Eleno.** Urriaren 3an.  
**Teodora Prieto Chapin.** Urriaren 3an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 11 LASA

Larunbata, 12 URBISTONDO

Igandea, 13 URBISTONDO

Astelehena, 14 GANDARIAS-URIBE

Asteartea, 15 URJUE

Asteazkena, 16 DE MIGUEL

Osteguna, 17 LASA

## EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORJUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## OHARRAK

## Posta bidezko bozka

2019ko azaroaren 10an Espaniako hauteskunde orokorretan ezin baduzu hauteslekura gerturatu, alderdi politiko ezberdinek posta bidezko bozka eskatzeko laguntza eskaini dute.

Lasarte-Oriako PSE-EEK Ganbo kaleko Herriko Etxean jasoko ditu eskaerak astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara edo 943 372 869 telefonora deituz.

EAJk ere telefono bat jarri du herritarren eskura, 943 363 340.

Bestalde, Correoseko bulegoan ere egin daitezke izapide guztiak. Urriaren 18ra arte dago bozka arrunta eskatzeko aukera. Atzerrian dauden herritarren kasuan urriaren 19a da azken eguna.

## Euskal Jaia

Urriaren 19an Ttakun Kultur Elkartean Euskal Jaia ospatuko da.

Egun guztiko egitaraua prestatu dute, eta bazkarira joateko txartelak elkartean eta Jalgi Kafe Antzokian erosi ahal izango dira. Helduen tiketak 10 euroko kostua du, eta gazteenak, berriz, 6 eurokoa. Urriaren 15era arte egongo dira salgai.

## Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko Elkarte

Gipuzkoako Animaliak eta Landareak Babesteko elkarte diru-irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta duela 50 urte baino gehiago sortu zen. 1997 urtetik Zuhazpe aterpetxea du martxan Usurbilen. Elkarteak, besteak beste, kalean dauden edo tratu txarrak jasan dituzten animaliak jaso, zaindu eta familia berria bilatzen dio harrera edo adopzioaren bitartez.

Bere xedea aurrera eramaten laguntzeko kide berri bila dabil elkarte eta horregatik gipuzkoarrak gonbidatzen ditu Zuhazpe aterpetxera hurbildu (Kalezar auzoa 84, Usurbil) eta euren lana ezagutzera. Bisitak astelehenetik larunbatera egin daitezke 10:00etatik 14:00etara.

## GUTUNAK

## Galdera hutsala, erantzun hutsala, Udalaren galdeketa ere...

## AIRE GARBIA

Lurpeko edukiontzien ganean "informatzeko eta parte hartzeko" Udalak deitu zuen hitzaldietan erabilitako txosten teknikoaren laburpenaren harira hainbat gogoeta partekatu nahi genituzke.

<Kokapena> atalean dio "Herritarrak dira etxeko hondakinak behar bezala bereizteaz eta kontsumo arduratsu batez kontzientzia hartu behar duten eragile nagusiak". Hitz horien bidez Udalak herritarren bizkarrean jartzen du hondakinaren bereizketaren ardura eta muzin egiten dio afera horretan dagokion ardura eta erantzukizunari. Udala ezkututzen ari da baduela eskumenik eta baliabiderik herritarrek hondakinak nola bereiztu behar dituzten arautzeko, eta ondorioz, bereizketa tasa handiagoak bermatzeko. Herritarren adinako ardura, gutxienez! Hainbat neurri proposatu ziren, esaterako, Sasoetan hilaren 9an egin zen bileran. Denak birziklatze tasak handitzeko helburuz, hori baitzen bildu ginenon kezkarik nagusienetakoa.

Argi dago galdeketa ez duela helburu bereizketa

tasa handitzea. Ulergaitza, kontuan izanik sortzen den errefusa hori erre nahi dutela eta haizeek ekarriko dizkigutela ke eta hauts horiek. Zenbat eta gehiago erre, orduan eta ke handiagoa denboran luzeagoan. Lasarte-Oriak sortzen duen errefusa kopurua murriztuta, erraustegiaren ke isurkinak ere murriztuko lirateke, eta ondorioz, ke horien kalteak ere. Horra hor, mugak muga, modu lokalean nola heldu ahal dion Udalak arazo globalago bati. Estrategia hori lehentasunezkoa beharko luke izan Udalarentzat, baina argi dago ez diola bide horri heldu nahi, nahiz eta hura izan, gaur-gaurkoz, udal esparrutik herritarren ongizatearen alde egin lezakeen gauzarik eraginkorrenetakoa. Birziklatze tasa %46tik %50era igo nahi duela adierazi zigun teknikariak hitzaldian. Anbizio gutxiko helburua kontuan izanik, Urnietan, Usurbilen, Astigarragan eta Hernanin, esaterako, %70tik gorakoa denean.

<Alternatiben azterketa eta aurkezpena> izeneko atalean, bestalde, hiru aukera: a) lurpeko edukiontzi guztiak ixtea barruko makineria kendu gabe (457.380 euro); b) lurpeko edukiontzi guztiak ixtea barruko makineria kenduta (bi aurrekontu, bata 520.300 eurokoa eta 352.175 eurokoa. Eta c) oraingo lurpeko edukiontziak

berritzea goitik behera (353.973 euro, urtebeteko mantenua barne). Gaineratu behar da, lurpeko denak kenduz gero, Mankomunitateak pixkanaka ordainduko litzuzkeela lurgaineko edukiontziak (gastu gehigarriak ez Udalarentzat); eta lurpeko edukiontziei eutsiz gero, bigarren urtetik aurrera mantenu-kostea 147.813 eurokoa litzatekeela.

Begi bistakoa da aukerarik merkeena eta zerbitzurik osatuena eskaintzen duena zein den: 352.175 euroko hori. Ez da galdeketa antolatuta behar hori erabakitzeke. Tira, helburua ez bada, behinik behin, logika ooren aurka merkeena ez den aukeraren bati bidea ematea, edo eta galdera otzan, xalo eta hutsal baten bidez, herritarren parte-hartzea sustatzen duen Udal baten itxura ematea. Herritarren parte-hartze prozesuak banalizatzeko saiakera gaiztoa gure ustez.

Postdata. Galdeketa planteamendu horren harira, jendarte manipulatzekeo estrategia hori buruz Noam Chomsky pentsalariak idatzitakoak irakurtzeko gonbita luzatzen diegu irakurleei. Egizue eta harrutuko zarete!



ESKELA

**OROIGARRIA**



**JOXEPA LAZKANO TOLOSA**

Pedro Artetxeren alarguna

—Goian bego—

2019ko urriaren 9an hil zen, 90 urte zituela.





Besarkada handi bat familiari,  
Ttakun Kultur Elkartearen partetik.

Ttakun Kultur Elkartea

AZOKA TXIKIA

**LANA**  
**ESKAINITZA**  
Pertsona baten bila gabiltza, ebeko lanak eta afora prestatzeko, astelehenerik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. 688 667 982.

**ESKARIA**  
Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.  
Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interna edo asteburuetan. 603 296 104.  
Pertsona eskaintzen da haurrak zaindu edo pertsona adinduekin egoteko. 638 550 178.  
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.  
Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

**SALEROSKETA**

**EROSI**  
Land Rover Defenderra erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

**HEZKUNTZA**

Klase partikularrak emango nituzke. 677 141 001.


**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20€ (BEZ barne)  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta Maitane  
Aldanondo.

**Publizitatea**  
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**  
Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz  
Ezeiza, Iñigo Garcia eta Jose  
Lanchas.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**  
Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**  
Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 11

### LASARTE-ORIA Aste Berdea

Material birziklatuekin eginiko musika tresnen tailerra egingo da, Aste Berdearen barruan. Okendo plaza, 17:00etatik 19:00etara.

### LASARTE-ORIA Bilera

Podemos zirkuluaren bileran, Pilar Garrido Unidas-Podemos alderdiko diputatuak gaur egungo egoera politikoaren azterketa egingo du. Manuel Lekuona kultur etxea, 3. solairua, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Aurkezpena

Enai Lasarte-Oria gazte erakundea aurkeztuko dute, eta kontzentrazioa egin udaletxe zaharrea, 20:30ean. Mirentxu, 19:00etan.

### LASARTE-ORIA Aste Kulturala

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturalari hasiera emango dio:

19:30ean, udal ordezkariak agurra eta luntxa.  
20:00etan, Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen emanaldia.  
20:30etan, pintxo-potea.  
21:00etan, dantzaldia.  
Okendo plaza, 19:30etik aurrera.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez artistaren *Marrak* erakusketa urriko asteburuetan ikusgai. Ostiraletan 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Antonio Mercero Aretoa.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Mundu Bat elkarteak Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan egindako argazkien erakusketa ikusgai jarri du. Jalgi Kafe Antzokia, egun osoa.

## LARUNBATA 12

### LASARTE-ORIA Aste Berdea

Aste Berdeari amaiera emateko hainbat ekimen izango dira: 10:00etatik 14:00etara, material berrerrabiliekin eginiko herrikirolak, aire garbi baten alde eginiko murala, eguzkia energia erabiliz egindako kafea eta informazio mahaia.



**LASARTE-ORIA Aste Kulturala.** Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala kalera aterako du, beste behin. Gaur, ostiralez hasi eta igandera arte, Andaluziako kulturak beteko du Okendo plaza. Musika, dantza, haurrentzako ekimenak eta hainbat txapelketa izango dira. Herriko elkarteko taldeez gain, La calle del remolino flamenko taldearen emanaldiaz gozatu ahalko da larunbat arratsaldean. Andaluzioako produktuez eta edariez ere gozatu ahalko da plazan jarritako txosnan. Okendo plaza, ostiraletik igandera.

11:00etatik 12:00etara, *Ezagutu Lasarte-Oriako aire-kutsadura ibilbidea* egingo da. Ibilbidea amaitzean, #LasarteOriakutsadurarikgabe Instagram lehiaketako saria banatuko da. Okendo plaza, goiza.

### LASARTE-ORIA Aste Kulturala

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala antolatu du: 12:00etan, haur jolasak eta aurpegia margotzeko tailerra. 13:00etan, pote txapelketa. 13:30ean, Gitanillas del Alba dantza taldearen emanaldia. 14:30ean, Bazkari herrikoia: paella-jana. 17:30ean, La calle del Remolino talde flamenkoaren emanaldia. FARAk babestua. 19:30ean, Zambra dantza taldearen emanaldia. 20:30etan, dantzaldia. Okendo plaza, 12:00etatik aurrera.

## IGANDEA 13

### LASARTE-ORIA Aste Kulturala

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturalari amaiera emango dio: 12:00etan, pote txapelketa. 13:00etan, Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen emanaldia.

14:30ean, Herri bazkaria: eltzekada. 18:00etan, Semblante Rociero abesbatzaren emanaldia. 19:00etan, dantzaldia. 21:00etan, amaiera. Okendo plaza, 12:00etatik aurrera.

## ASTEARTEA 15

### LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Amaraun Klubeko HH3 eta HH4 mailako hurrek ipuin kontaketa saio bereziaz gozatuko dute. Abestiak, bertsoak... landuko dira hurrek gaia bereganatzeko. Izen ematea Ttakun Kultur Elkartearen [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbidean edo 695 785 392 whatsapp zenbakian. Osasun Zentroa, 2. solairua, 17:45etik 18:45era.

### LASARTE-ORIA Informazio saioa

Zabor kudeaketa sistemari buruzko informazio saioa eta tailerra jasoko dute Atsokabar auzoko herritarrek. Landaberri ikastola, Garaikoetxea eraikina, 18:30ean.

## OSTEGUNA 17

### LASARTE-ORIA Informazio saioa

Zabor kudeaketa sistemari buruzko informazio saioa eta tailerra jasoko dute Zabaleta auzoko herritarrek. Udal lokala, 18:30ean.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKJONA

**Érase una vez en... Hollywood (JBGA)**  
Ostirala: 22:00.  
**El Rey León**  
Igandea: 17:00.

**Ad Astra**  
Igandea: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

### Joker

Ostirala: 16:30, 18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00, 23:30, 00:45.  
Larunbata: 12:00, 16:30, 18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00, 23:30, 00:45.

Igandea: 16:30, 18:00, 19:15, 20:00, 20:45, 22:00.  
**Géminis**  
Ostirala: 16:45, 18:00, 19:20, 20:35, 22:00, 23:10, 00:35.

Larunbata: 12:00, 16:45, 18:00, 19:20, 20:35, 22:00, 23:10, 00:35.  
Igandea: 16:45, 18:00, 19:20, 20:35, 22:00.

**Abominable**  
Ostirala: 16:00, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30.  
Larunbata: 12:00, 16:00, 17:00, 18:15, 19:15, 20:30.  
Igandea: 16:00,

17:00, 18:15, 19:15, 20:30.  
**Rambo: Last Blood**  
Ostirala: 15:45, 22:40, 01:00.  
Larunbata: 12:00, 22:40, 01:00.  
Igandea: 22:40

**Mientras dure la guerra**  
Ostirala: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.  
Larunbata: 12:30, 15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.  
Igandea: 15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

**A dos metros de ti**  
Ostirala: 22:35, 01:00.  
Larunbata: 22:35, 01:00.

Igandea: 22:35.  
**Padre no hay más que uno**  
Ostirala: 15:55, 18:00.  
Larunbata: 12:30, 15:55, 18:00.  
Igandea: 15:55, 18:00.

**Ad Astra**  
Ostirala: 22:15, 00:50.  
Larunbata: 22:15, 00:50.  
Igandea: 22:15.

**Dora y la ciudad perdida**  
Ostirala: 15:45.  
Larunbata: 15:45.  
Igandea: 15:45.

**Mascotas 2**  
Larunbata: 12:30, 16:00.  
Igandea: 16:00.



### LABURPENA

### Érase una vez en... Hollywood (JBGA)

**Zuzendaria:** Quentin Tarantino. **Gidoilaria:** Quentin Tarantino. **Argazkia:** Robert Richardson. **Herr.:** AEB (2019). **Antzezleak:** Leonardo DiCaprio, Brad Pitt, Margot Robbie, Emile Hirsch, Margaret Qualley, Al Pacino, Kurt Russell, Bruce Dern, Timothy Olyphant, Dakota Fanning, Damian Lewis, Luke Perry, Lorenza Izzo. **Iraupena:** 165 minutu.

## 60. hamarkadako zinemari gorazarrea

Okendo zinema taldeak *Érase una vez en... Hollywood* filmarekin emango dio hasiera Zine forumeko denboraldi berriari.

Quentin Tarantinoren bederatzigarren lana Cannesko zinemaldian ikuzi zen lehenengoz eta kritikaren oniritzia jaso zuen.

Bere estiloari eutsiz, zinemari dijon zaletasuna eta errespetua erakusten du Tarantinok bere azken lanean. 60. hamarkadako Hollywood oinarri hartuta, garai hartan gertatutakoaren historia berridazten du. Eta istorioa sinesgarriago egiteko, garaioko zinema izar edo zuzendarien

erreferentziak edo agerraldiak ugariak dira.

Rick Dalton (Leonardo Di Caprio) 60. hamarkadako telebistako western bateko izarra da, eta haren akziozko ordezkia (Brad Pitt) oso lagun du. Bere bizia Hollywoodi lotua dago eta, garai hartako berrikuntzetara egokitzen saiatzen ari da. Bizilagun berria du Sharon Tate (Margot Robbie) modelo eta aktore gaztea. Berriki Roman Polanskirekin ezkondu da Tate.

*Érase una vez en... Hollywood* filma jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelazko azpizdatzizkiekin.





Urriaren 19ko Euskal Jaiaren aurkezpena egin zuten astearte arratsaldean, Okendo plazan. TXINTXARRI

# Euskara eta jaia Lasarte-Orian, urriaren 19an

Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen duen urteroko hitzorduak ez du hutsik egingo aurten ere. Urriaren 19rako hamaika ekintzez osaturiko egitaraua osatu dute, herriko zenbait eragilerekin batera, eta, beraz, giroa ez da faltako, goizetik gauera arte

## Txintxarri

Goiz-goizetik gauera arte euskal giroak hartuko du Lasarte-Oria, urriaren 19an. Ttakun Kultur Elkartearen eskutik, Euskal Jaia ospatuko dute. 09:30eko dianaren doinuekin esnatuko dira lasarteoriatarrak. Horren ostean, 11:00etan, Kantu Dantza Jira txikia abiatuko da kaskoan barrena, eta ordu erdi beranduago,

patata tortilla lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek.

Behin su artean martxa hartuta, gaztetxoentzako (9 eta 12 urte bitartekoentzako) bizkotxo lehiaketa izango da, 12:00etan.

Eguerdiko gosea arintzeko, sagardo dastaketan Lasarte-Oriako bost sagardotegitako

edaria dastatu ahal izango dute bertaratzen direnek; 12:30ean hasiko da.

Horren ostean, bazkari herrikoia antolatu dute, Okendo plazan (14:00etan). Bertara joateko tiketak Ttakun Kultur Elkartearen eta Jalgi Kafe Antzokian jarri dituzte salgai, eta hilaren 15era arte izango da horiek erosteko aukera. Paella,

postrea, kafea eta ogia barne hartuko ditu kostuak, eta bi prezio finkatu dituzte; 10 euro helduentzat, eta 6 euro gaztetxoentzat.

Arratsaldeko herri-kirolen erakustaldiak ere ez du hutsik egingo aurten. Ostolaza aita-alabak eta Beñat Telleria arituko dira harriak jasotzen, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, eta indar neurtze proba amaituta, musika izango da nagusi.

18:00etan, Soinuz Blai erromeriak girotuko du arratsaldea ordu eta erdiz, eta Oaintxe In Deu! txarangaren txanda izango da gero, 19:30ean. Azken musikari horiek, ordea, ez dira bakarrik arituko; Iker Ormazabal, Julene Iturbe, Aner Peritz eta Lierni Rekondo bertsolariek lagunduta ibiliko dira kaleetan barrena.

Gaueko dantzaldi eta kirol tarteari hasiera eman aurretik, herri afaria antolatu du Sorgin Jaiak. Okendo plazan izango da, gaueko 21:30ean. Ekintza horretara joateko ere tiketak erostea ezinbestekoa da, eta antolatzaileek azaldu dute

## HERRIKO ERAGILEEKIN BATERA ANTOLATU DU TTAKUN KULTUR ELKARTEAK AURTENGO EDIZIOA

Artizarren, Ilargin eta Jalgin erosi daitezkeela, 12 euroren truke. Hauek ere aurreratu dute menua zein izango den: entsalada eta oilaskoa edo seitana saltsan. Kafea eta edaria ere prezioaren barruan zerbitzatuko dira.

Afalostean musika izango da nagusi kalean eta tabernatan, eta egunarekin amaitzeko, Euskal Olinpiadak egingo dituzte 00:00etan.

## Goizez eta arratsaldez azoka

Egun osoko egitarauarekin batera, bertako produktuen, eskulanen eta bestelako salgaien azoka ere izango da Okendo plazan.

Antolatzaileek jakinarazi dute, eguraldi txarra eginez gero, Oriarte-Landaberri ikastetxeke estalkira lekualdatuko direla ekintza nagusiak.



Xumelako kideak herriko kaleak alaituko dituzte urriaren 19an. TXINTXARRI

URTINEA

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL

943 917 562



LORADENDA  
EZKONTZA ETA  
EKITALDIAK  
DEKORAZIOA